

NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOAREN BERRANTOLAKETA

NUKFK BURUTU DUEN PROZESU PARTE- HARTZAILEAREN ONDORIOZKO DOKUMENTUA

2017ko maiatzaren 31



AURKIBIDEA

	<u>Orrialdea</u>
0. SARRERA	2
1. TOKIKO MAPAREN BERRANTOLAKETAREN BURU IZAN BEHAR DUTEN PRINTZPIOAK	3
2. PROPOSAMENAREN OINARRIZKO LABURPENA	5
• Eskumenei dagokienez	5
• Udal-plantari dagokionez	5
• Toki-finantziarioari dagokionez	6
3. PROPOSAMENAREN EDUKIA	7
3.1. Kontzejuak	7
• Konfigurazioa eta toki-erakundearen tipologia	7
• Eskumenak	8
• Finantziarioa	8
3.2. Udalerriak	8
• Konfigurazioa eta toki-erakundearen tipologia	8
• Eskumenak	9
• Finantziarioa	9
3.3. Udalez gaindiko erakundeak	11
• Konfigurazioa eta toki-erakundearen tipologia	11
• Eskumenak	12
• Finantziarioa	13
• Elkarte tradizionalak	14

0.- SARRERA

Legealdi honen hasieratik Nafarroako Gobernua sustatzen ari den Nafarroako Toki Administrazioaren Berrantolaketarekin loturik toki-erakundeek duten jarrera zehazte aldera, NUKFk prozesu parte-hartzailea jarri zuen martxan, eta bi fasetan garatu du. Lehen fasean, aipatu berrantolaketa horretarako, toki-erakundeetako ordezkarien oinarritzko proposamenak jaso ziren. Proposamen horiekin dokumentu bat landu zen, eta Nafarroako Gobernuari helarazi zitzaion 2016ko ekainean. Bigarren fasean, Nafarroako Gobernuak NUKFk landutako proposamenak kontuan hartuta 2016ko abenduan aurkeztu zituen ildo nagusiak baloratu ziren,

Lan horien guztien emaitza da dokumentu hau. Dokumentuak toki-erakundeek Toki Administrazioaren Berrantolaketaren inguruan duten jarrera jasotzen du, Nafarroako Gobernuak aurkeztutako ildo nagusien dokumentuaren balorazioa barne.

Azpimarratu behar dugu NUKFren prozesu parte-hartzailean berrehun toki-erakundetik gorako bostehunen bat ordezkari hartu dutela esku.

1.- TOKIKO MAPAREN BERRANTOLAKETAREN BURU IZAN BEHAR DUTEN PRINTZPIOAK

Toki-erakundeek adostutakoaren arabera, Toki Administrazioaren Erreforma gidatu behar duten printzipioak honako hauek dira:

1. Toki Administrazioaren erreformaren xedeak izan beharko luke toki-erakundeek beren eskumenak gauzatzea lurralde-, demografia- eta administrazio-esparru egokienetan, helburua izanik jardun horretan eraginkortasunik era eragimenik handiena bermatzea. Horrek eskatzen du aipatu eskumenetako batzuk gauatzeko tokiz gaindiko esparruak definitzea.
2. Udalen eskumenak gauzatuko dituzten arloen definizioa tokiko mapa arrazionalizatzeraz bideratu behar da, baina, halaber, kontuan hartu behar du toki-erakundeak zein arlotan sentitzen diren identifikatuak. Toki-erakundeek arlo horiek definitzen parte hartuko dutela bermatu beharko da.
3. Toki-administrazioaren maila desberdinetan egindako eskumenen banaketak eta foru-administrazioarekiko banaketak argia eta zehatza izan beharko dute, eta, halaber, subsidiariotasunaren printzipioan oinarritu beharko dute; horren arabera, zerbitzu bakoitza ahal denik eta hurbilen egonen da herritarrengandik, betiere, eraginkortasunez eta eragimenez burutzen badira. Gainera, toki-erakundeek, berezkoa duten izaera demokratikoari, ordezkagarriari eta parte-hartzaileari eutsi beharko diote.
4. Esleituko zaizkien eskumenetan, toki-erakundeek behar besteko autonomia izan beharko dute beren erkidegoen interesak kudeatzeko.
5. Kontzejuek berariazko araudia eduki behar dute antolamendu- eta funtzionamendu-erregimenari dagokienez. Erregimen horrek toki-erakundeen berezitasunak hartu beharko ditu aintzat, eta kontzejuek beren eskumenak gainerako toki-erakundeek dituzten baldintza beretan gauzatuko dituztela bermatu beharko du.
6. Erreforma-prozesuan, egun dauden lurraldeko toki-erakundeak mantenduko direla bermatu beharko da. Erakunde horiek desagertzeko edozein neurri, legez gauzagarri diren edozein neurriren bitartez gauzatua (bat-egitea, desagertzea, eta abar), borondatezkoa izanen da.
7. Borondate hori bera mantendu behar da tokiz gaindiko erakundeetara biltzeko, baita leheneratzeko ere.
8. Nafarroako Toki Administrazioaren berrantolaketa oinarritzko helburuetako bat izan behar du herritarrei emanen zaizkien zerbitzuak berdintasunean ematea, honela ulertuta: erakunde guztietan bermatuko dira gutxieneko zerbitzuak eta azpiegiturak, despopulazioari aurre egiteko politika publikoei laguntze aldera.
9. Toki-erakunde guztiei bermatu behar zaizkie finantza-askitasun-, ekitate- eta jasangarritasun-printzipioak baliabideei dagokienez. Halaber, toki-administrazioak herritarren premiak eta eskubideak asetzeko beharrezkoak diren bitarteko eta zerbitzu nahikoez hornitu behar dira.

10. Erreformatoki-administrazio modernoa bermatu behar du, toki-administrazioetako langileen eta profesionalen lan-kalitatea sustatzera, berrikuntzara, administrazioa sinplifikatzera eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak modu eraginkorrez erabiltzera bideratua.
11. Berrantolaketan kontuan hartu beharko dira, batetik, herritarren parte-hartzea erabakiak hartzerakoan, eta bestetik, kudeaketan gardentasuna hobetzea. Berrantolaketa horrek, gainera, herritarren eskubideak bermatu beharko ditu, baita herritar horiek beren betebeharrak beteko dituztela ere.

2.- PROPOSAMENAREN OINARRIZKO LABURPENA

Toki-erakundearen proposamena, oro har, honela laburbil daiteke:

• ESKUMENEI DAGOKIENEZ

Toki-erakundearen proposamenak udalen eskumenak argi eta zehatz mugatzea exijitzen du, eta toki-esparrurako eskatzen ditu gaur egun udalek betetzen dituzten ia eskumen guztiak mantentzea. Hala eta guztiz ere, ondoren aipatzen diren eskumenak autonomia-esparrura eramatea proposatzen du:

- Hezkuntzakoak, ikastetxeen mantentze-lana eta haur-hezkuntzako lehen zikloa barne.
- Osasunekoak, tokian tokiko kontsultategiak eraiki eta horien mantentze-lanari dagokienez.
- Ingurumen-kutsadura zaindu eta kontrolatzeari buruzkoak.

Toki-erakundearen eskumenak mugatuta, eskumen horiek toki-administrazioaren maila desberdinetan (kontzejuak, udalak udalez gaindiko erakundeak) nahitaez banatzea proposatzen da, eskumena garatzeko egokien irizten den esparruaren arabera, nagusiki ekonomia-, eraginkortasun- eta eragimen-arrazoiei erreparatuz.

Kontzejuaren esparrurako, gaur egun kontzejuak legez dituzten eskumenei eustea proposatzen da.

Udalei dagokienez, berriz, toki-esparrurako aldarrikatzen diren eskumen guztien titularitatea esleitzea proposatzen da, aipatu diren baldintzetan kontzejuei esleitutako eskumenak izan ezik. Halaber, eskumen horietako gehienak udaletan mantentzea proposatzen da, udalak toki-administrazioan oinarrituko eta lehentasuneko toki-erakundeak diren aldetik.

Alabaina, hainbat eskumen udalez gaindiko esparrura eraman behar direla proposatzen da; izan ere, gaur gero, esparru horretan ematen ari baitira. Zehazki, udalez gaindiko esparrua egoki ikusten da ondoren aipatzen diren eskumen horiek betetzeko:

- Uraren ziklo integrala betetzen dutenak.
- Hondakin solidoak kudeatu eta tratatzekoak.
- Oinarrituko gizarte-zerbitzuetako eskumenak.

Halaber, esparru hori egoki ikusten da gaur egun udalek eskumen inpropio gisa ematen dituzten zenbait eskumen gauzatzeko: musika-eskolak, jantoki sozialak, eta abar.

• UDAL PLANTARI DAGOKIONEZ

Egun dauden lurraldeko toki-erakundeak mantentzea proposatzen da: udalak eta kontzejuak. Halaber, Elkartea Tradizionalak mantentzea (beren helburuen berezitasunagatik eratu baitira), eta udalez gaindiko esparrura eraman diren eskumenak gauzatzeko egoki ikusten diren udalez gaindiko erakundeak sortzea proposatzen da.

Udalez gaindiko erakunde horiek sortzeari dagokionez, toki-erakundeen proposamenak funtsezko hiru afera hartzen ditu aintzat:

1. Egitura hori osatuko duten udalak beren borondatez atxikitzea. Edonola ere, erakunde horiek sortuko badira, beharrezkotzat jotzen da erreferentziazko lurralde-esparruak egoki mugatzea.
2. Udal-eskumenak beren gain hartzea eskuordetzaz.
3. Gaur egungo errealitatetik erreformaren eredura pasatzeko trantsizio-araubide bat izatea premiazkotzat jotzen da.

● TOKI FINANTZIAZIOARI DAGOKIONEZ

Foru Erkidegoko tributueta izanen den partaidetza denera bilduko denarekiko portzentaje batean zehaztea proposatzen da, gutxieneko zuzkidura bermatuz. Halaber, partaidetza horren zati batek kapital-transferentzietarako funts bat eratzea proposatzen da, toki-erakunde guztietan oinarritzko azpiegituren gutxieneko zuzkidura bat bermatze aldera.

Diru-laguntza finalisten egungo sistema ere aldatzea proposatu da, zerbitzuen finantziazioa bermatze aldera.

3.- PROPOSAMENAREN EDUKIA

Jarraian, erreformarako toki-erakundearen proposamenak garatuko ditugu, entitate-tipologiaren arabera zehaztuta.

3.1.- KONTZEJUAK

● KONFIGURAZIOA ETA TOKI ERAKUNDEAREN TIPOLOGIA

Toki-erakunde gisa mantentzea proposatzen da, gaur egun dituen antzeko baldintzetan. Iraunkortasuna eta behar bezalako funtzionamendua bermatzeko, behar besteko bitarteko pertsonal eta material eduki behar dituzte. Horregatik, babeserako azpiegitura teknikoak egotea proposatzen da, gaur egun dauden gabeziak gainditzea ahalbidetzeko. Egitura horiek udalerrian koka litezke, edo sortuko diren udalez gaindiko entitateetan.

Nafarroako Gobernuaren ildo nagusien dokumentuak (kontzejuaren biziraupena bermatzeko) ez du babes-egitura horiek jasotzen, eskumenak eta baliabideak osorik eskuordetzeko berariazko balizko bat baizik. Balizko eskuordetze hori onartu egiten dute toki-erakundeek, betiere beren funtzionamendu egokia bermatuko duten bestelako aukerak badaude. Alegia, kontzejuak eskuordetze hori egitera behartuta ez egotea bitartekorik ez dagoelako, aukerarik egokiena dela irizten diotelako baizik.

Berariazko eskuordetza balizko horri buruzko inkestaren emaitza hauxe da:

- % 42,52 berariazko eskuordetza balizko horren alde dago.
- % 35,51 aurka dago.
- % 6,78 ez daki, ez du erantzun.
- % 15,19 alde dago, betiere kontzejuen eskumenak eta legezko betebeharrak betetzea ahalbidetuko duten aukerak badaude.

Gai horretan, udalerrri konposatuaren udalen kexak aipatu behar ditugu; ez ditugu inkestak jaso oso gutxi direlako, baina udal horiek behar dituzten baliabideak eta horiek finantzatzeko modua ez direla definitzen aipatzen da.

Kontzejuak beraiantzat bereziki garrantzitsuak diren udal-jardueretan parte hartzea bermatzeko, udalaren antolamenduaren barnean kontzejuak parte harteko berariazko organo bat eratzea proposatzen da.

Kontzejuak iraungitzeari dagokionez, toki-erakundearen iritziz horretarako balizko baliozko bakarrak lirerateke, batetik, borondatez iraungitzea, eta bestetik, hauteskunde-prozesuetan hautagaitzarik ez egotea behin eta berriz.

Nolanahi ere, iraungi behar izan duten kontzejuetarako prozedura malguago bat jasotzea proposatzen da, atzera kontzeju gisa berriz eratu ahal izan daitezten.

Nafarroako Gobernuaren ildo nagusien agirian kontzejuak iraungitzeko jasotako balizkoei dagokienez, errefusatu egiten da kontzejuak iraungitzeko arrazoia edo balizkoa legezko betebeharrak ez betetzearena izatea.

Kontzejuentzat ere berariazko eta behar adinako araudia eskatzen da, egungo araudiak udalen funtzionamendu- eta antolakuntza-araudirako bidaltze-ohar ugari baititu; horrek arazo ugari sortzen ditu araudia aplikatzeari dagokionean.

Araudi horretan aintzat hartu beharreko alderdien artean leudeke gobernu-organoen erregulazioa. Kontzeju-batzarrerako kide-kopuru aldagarri bat proposatzen da, honako hauek kontuan hartuta: biztanle-kopurua, abstentzio eta bateraezintasun-arrazoiak, kontzejuko presidentea kargugabetzeko balizko gisa zentsura-mozioa aurkeztu ahal izatea, eta abar.

Aipatu beharra dago ez direla aztertu kontzeju handien eta ertainen balizko bereziak, batzuk Gobernuaren dokumentuan aipatuak eta toki-erakundeek konstataturik: Arre, Artika eta Aizarotz, besteak beste.

● **ESKUMENAK**

Kontzejuentzat Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak gaur egun aitortzen dizkien eskumenak mantentzea proposatzen da, baita bestelako eskumenak eskuordetzeko edo beren gain hartzeko aukera ere.

● **FINANTZIAZIOA**

Beren eskumenak gauzatuko direla bermatzeko, kontzejuek ekonomia-baliabide nahikoak eduki behar dituzte.

Kontzejuek partaidetza-funtsean zuzeneko parte-hartzea izatea defendatzen da, beren eskumenak gauzatzeko behar dituzten baliabide ekonomiko nahikoak bermatzeko.

Halaber, udalen eta kontzejuen artean baliabide ekonomikoak birbanatzeko legezko formula egonkorrak ezartzea proposatzen da, bai transferentzia arruntetarako, bai kapital-transferentzietarako, eta bereziki inbertsioak finantzatzeko direnetarako.

3.2.- UDALERRIAK

● **KONFIGURAZIOA ETA TOKI ERAKUNDEAREN TIPOLOGIA**

Foru Erkidegoko oinarrizko toki-erakunde eta erakunde nagusi gisa udala izaten jarraitzea proposatzen da, eta, horrenbestez, udalerrian kokatuko diren eskumen guztien titularra izan behar du, salbu eta kontzejuei esleitzen zaizkienena; hala ere, aukera izanen dute udalez gaindiko beste esparru batzuetan eskuordetzeko, nagusiki udalari eskumena gauzatzea zaila gertatzen bazaio eta ekonomia- eta eraginkortasun-zioek hala aholkatzen badute.

Nafarroako Gobernuaren dokumentuak ere udalari esleitzen dio oinarrizko toki-erakunde izaera hori. Alabaina, beste entitate batzuei esleitzen dizkie zuzenean udalen zenbait eskumen.

Areago, beste entitate batzuek, udalen borondatea alde batera utzita, udalen eskumenen bat beren gain hartzeko aukera ere jasotzen du.

Bere eskumenak gauzatzeko berme gisa, batez ere biztanleria txikiko udalerrietan, toki-erakundeek izaera instrumentaleko egiturak proposatzen dituzte, udalez gaindiko esparruan kokatu beharrekoak.

● **ESKUMENAK**

Toki-erakundeek gaur egun gauzatzen ari diren ia eskumen guztiak udalerrian mantentzea defendatzen dute; eskumen horiek modu argian zehaztu beharko lirateke. Nafarroako Gobernuaren esku gertuko dira soilik arestian aipatutako eskumenak; hau da, osasuna, hezkuntza eta ingurumenaren kontrola.

Ez zegoen iritzi argirik zenbait eskumen gauzatzeko esparru egokiari buruz:

- Ondare historikoaren kudeaketa.
- Etxebizitzen sustapena, kudeaketa eta zaharberritzea.

Lortutako emaitzak argi uzten du bi eskumen horiek udalak hartu behar dituela bere gain: lehenaren alde % 68,22 agertu zen, eta bigarrenaren alde, berriz, % 70,33.

Edonola ere, toki-erakundeak bat datoz zenbait eskumen udalez gaindiko esparruan gauzatzearekin, esparru horretatik eraginkortasun eta eragimen handiagoz gauza daitezkeela iritzita. Dena dela, arlo horietan udal-eskumenak gauzatzeak aldez aurretik eskumen horiek eskuordetzea eskatuko luke, erreforma gidatu behar duen borondatezkotasun-printzipioa gordez.

Zehazki, udalez gaindiko esparrutik ondorengo eskumen horiek gauzatzea eskatzen da:

1. Uraren ziklo integrala, hiri-hondakin solidoak eta gizarte-zerbitzuak.
2. udalez gaindiko erreferentziatzko esparruan orokortuta dauden eskumen mankomunatuak.
3. Udalek eskuordetzea erabakitzen dituztenak. Horri dagokionez, toki-erakundeen iritzi, esparru horretatik gauza daitezkeen eskumenen artean egongo lirateke musika-eskolak, eskolaz kanpoko ekintzak, jangela sozialak, turismo eta kirola, besteak beste. Neurri handi batean, udalek gaur egun eskumen inpropio gisa gauzatzen dituzten eskumenak lirateke.

● **FINANTZIAZIOA**

Askitasun-, autonomia-, jasangarritasun- eta ekitate-printzipioak kontuan hartuta, finantziazio-sistema diseinatu beharko da eskumenak gauzatzeko egokienak izanen diren baliabideak kontuan hartuta, eta eskumen horiek gauzatuko dituen maila administratiboari esleitu beharko zaizkio baliabide horiek. Finantziazio hori behar bestekoa izatea, eta diru-sarrerak lortzeko aukeran egon daitezkeen desberdintasunek eragin ditzaketen desorekak zuzentzea ahalbidetu behar da.

Zergei dagokienez, tokiko zerga-sistema berraztertzea proposatzen da, bereziki katastro-balorazioak arintzeari dagokionez.

Nafarroako Gobernuak zergen inguruan egindako proposamenei dagokienez, bat gatz tokiko zerga-sistemak lagundu behar duela lurralde-oreka handiagoa izaten presio fiskalari dagokionean, eta udal-zergen kargak eguneratu behar direla, egungo aldagaietara egokituta, tokiko autonomia kaltetu gabe.

Ondorio horietarako, toki-finantziazioaren arloan galdetegiak eman duen emaitza azpimarratu nahi genuke:

Egokia iruditzen al zaizu udal-zergak aldatzea presio fiskalean lurraldeen arteko oreka lortze aldera?

% 68,69 ados dago.

% 25,93 ez dago ados.

Tributueta parte hartzeko funtsari buruz, Foru Erkidegoko tributuen portzentaje bat bezala kuantifikatzea proposatzen da, gutxieneko berme-zuzkidura batekin, inbertsioetarako berariazko finantziazioa jasoko duena, udalerrri guztietan gutxieneko azpiegiturak eta ekipamendua bermatze aldera.

Inbertsioetarako berariazko zuzkidura horren banaketa egituratzeko, kontuan hartu behar da aukera eman behar duela aplikatzerakoan nolabaiteko autonomia-maila izateko. Alegia, baldintzek orokorrak izan behar dute (inbertsioetara aplikatzea), baina toki-erakunde bakoitzak erabaki ahal izatea zertan erabiltzen duen zehazki. Horri loturik, gehiengo argi bati (%78,27) egokia iruditzen zio toki-programazioko obretara zuzendutako toki-inbertsioetarako planeko (TIP) zatia ezabatzea, eta erabaki libreetarako funtsarekin ordezkatzeta. Edonola ere, kapital-transferentzia horien zuzkidura eta banaketa toki-erakunde guztietan oinarritzko zerbitzuekin lotura duten gutxieneko azpiegiturak bermatzeko helburuarekin lotzea eskatzen da.

Horretarako, gaur egun azpiegituren inguruan dagoen defizitaren analisisia egin beharra dago, eta analisi horretan oinarrituta, kapital-transferentzien zuzkidura eta banaketa diseinatu, toki-erakunde guztiek eduki beharko luketen gutxieneko azpiegituren katalogo bat abiapuntu hartuta.

Plan zuzentzaileak mantentzea bermatuko duen linea behar dugu.

Transferentzia arrunten zuzkidurari dagokionez, proposamen horiek egin dira:

1. Ahal den neurrian, diru-laguntza finalisten egungo sistema kentzea proposatzen da. Hortaz, diru-laguntza horiek transferentzia arrunten funtsean sartzearekin, eta zerbitzu-moduluen arabera banatzearekin bat gatz.
2. Determinazio libreko funtsaren banaketari dagokionez, kontuan hartu beharko dira izaera sozioekonomikoko, garapeneko, lurralde-orekako eta azpiegituren defiziteko aldagaiak hartu beharko dira kontuan, egun daudenez gain (biztanleria...).
3. Adostasuna dago funtsak montepioen defizita barne hartzearekin edo soluzioa ematearekin (% 85,05).
4. Halaber, hautetsien % 83,88ren iritziz, funtsak hautetsiendako egun duen zuzkidura mantendu beharko luke, eta zuzkidura hori toki-erakunde guztietara zabaltzeko beharko litzateke. Edonola ere, % 93,22ren iritziz, ordainsari horietarako muga bat egon behar du.

5. Funtsa banatzeko sistemak lehendik jasotako zenbatekoen berme indibidualeko formula bat eduki beharko luke.
6. Hiriburutza Agiriaren egungo zuzkidura berrikusi beharra dago, Hiriburutza Agiri hori aplikatuko zaien udalerrien hiriburu- edo zentralitate-izaerak berarekin dakartzan gastu gehigarriak ebaluatuko dituzten datu objektiboak zehazteko.

Gai horretan oso argiak izan dira galdetegiari emandako erantzunak. Zalantzak sortu dituen galdera bakarra izan da funtsak entitate bakoitzaren presio fiskala sustatu behar ote duen ala ez (% 49,07k baietz, eta % 37,85ek ezetz). Alabaina, emaitza hori presio fiskalean lurralde-homogeneotasun handiagoa lortzeko helburuarekin lotu behar da.

Zerbitzuen kostua ebaluatu ahal izateko ondorioetarako, iritziek diote kontabilitate analitikoaren sistema bat ezarri beharko litzatekeela (% 90,61).

3.3.- UDALEZ GAINDIKO ERAKUNDEAK

● KONFIGURAZIOA ETA TOKI ERAKUNDEAREN TIPOLOGIA

Toki-erakundeentzat erreformaren funtsezko alderdia da udalez gaindiko eremua arrazionalizatzea eta sinplifikatzea.

Erakundeek esparru horretarako egin duten proposamenak zerbitzuak emateko egokiak izanen diren erreferentziazko lurralde-esparruak mugatzea, eta esparru horietara egokituko diren udalez gaindiko entitateak sortzea defendatzen du.

Prozesuan parte hartu duten hautetsi gehienek iritziz, Nafarroako Gobernuak proposatzen duen eskualdearen irudia egokia da udalez gaindiko maila berrantolatzeko (% 61,12), baita eskualdeek definitutako lurralde-esparruak ere (% 61,12). Edonola ere, Gobernuak entitate horiek eduki behar dituzten ezaugarrien inguruan egindako proposamenarekin ez datoz bat.

Toki-erakundeek onartutako printzipioetako batek dio sortuko diren udalez gaindiko entitateetara atxikitzea borondatezkoa izanen dela. Eskualdeak sortzeko prozesuari dagokionez, Nafarroako Gobernuaren ildo nagusien dokumentuan jaso, % 73,36aren iritziz, ez da eskualderik sortuko baldin eta eskualdera bildu behar duten udalerrien bi bostenak aurka badaude, betiere, hala gertatuz gero, udalerririk horiek dagokion hauteskunde-eroldaren erdia badira. Alegia, eskualdea sortuko bada, Toki Araubideko Oinarrien Legeak jasotzen duen quoruma errespetatu beharko dela irizten da.

Toki-erakundeak ez daude ados, halaber, eskualdeek eskumenak eskuratzeko moduarekin; alderdi hori hurrengo atalean aztertuko dugu.

Toki-erakundeek, orobat, beren iritzia eman dute ea eskualdea sortzeak berarekin ote dakarren dagokion eskualdean dauden mankomunitateak automatikoki iraungitzea ala ez. Haien iritziz, iraungiko badira, ezin da automatikoa izan, modu iragankorrean baizik, eskualdeek udalek eskuordetutako zerbitzu mankomunitateak bereganatu ahala. Ildo horretan, erreformak egungo eredutik arautuko den eredu berrira pasatzeko trantsizio erregimen bat jasotzea proposatu da.

Egun dauden mankomunitateak automatikoki iraungitzearekin ados ote dauden egin den galderaren emaitza zehatza hauxe izan da:

- % 14,95 ados dago automatikoki iraungitzearekin.
- % 30,37 ez dago ados automatikoki iraungitzearekin.
- % 51,84 bai, baina eskualdeak mankomunitatutako zerbitzuak bereganatu ahala.

Eskualdea eratuta, bidezkoa ikusten da horrek soilik kudeatzea zerbitzu komunak.

Afera horren inguruan egindako galderaren emaitza hauxe da;

- % 53,27 ados dago.
- % 35,28 ez dago ados.

Eskualdeetako gobernu-organoei dagokienez, planteatutako aukerak direla-eta, ildo nagusien dokumentuan proposatzen da organo horiek aukeratzeko sistema berdina izatea eskualde guztietarako (% 69,86). Gobernuak eskualdeko organoak aukeratzeko proposatutako sistemari dagokionez, ondorengoak dira prozesuan lortutako emaitzak:

- Zuzeneko boto-emate bidez, % 23,83.
- Udalek izendatuta, % 30,84.
- Sistema misto bidez, % 17,52.

● **ESKUMENAK**

Toki-erakundeen iritziz, udalez gaindiko erakundeek izaera bikoitza eduki behar dute; funtzionala eta instrumentala. Horrek esan nahi du entitate bakoitzak eskuordetuko dizkion zerbitzuak emateaz gain, udalez gaindiko erakunde horiek osatzen dituzten entitateei babesa eta laguntza ere eman behar dizkietela.

Nolanahi ere, onartu egiten da entitate horiek beren gain hartu ahal izatea tokian tokikoagoak izan daitezkeen hainbat funtzio. Zehazki, Gobernuaren dokumentuan proposatutako halako funtzioetatik ondorengoak hartzea onartzen da:

- Ekonomia-jarduera sustatzeko ekintzak (% 63,79).
- Eskualde-plangintza eta, eskualde-mailan, lurraldea antolatzeko tresnak kudeatzeko eskumenak (% 61,41).

Edonola ere, negatiboki baloratzen da eskualdeak ehiza- eta arrantza-barrutiak, industrialdeak, ur-jauzi hidraulikoak, haize-sorgailuak, zuntz optikoaren eroanbideak, besteak beste, kudeatzea.

Horrez gain, kontuan hartu behar da eskumen horien zati handi bat autonomia-erkidegoari dagokiola, eta horrek bere isla eduki behar du finantziazio-sisteman.

Izaera funtzionaleko zerbitzuei dagokienez, ados gaude eskualdeak ondorengo eskumenak gauzatzearekin:

1. Uraren ziklo osoa, hondakin solidoen kudeaketa (bilketa eta tratamendua) eta oinarritzko gizarte-zerbitzuak.

2. Gaur egun arlo bakoitzean modu orokortuan mankomunaturik dauden eskumenak.
3. Eskuordetuko zaizkien beste eskumen batzuk, nagusiki udalak horiek gauzatzeko zailtasuna izan badezake, edo ekonomia- eta eraginkortasun-zioek hala egitea gomendatzen badute.

Eskumenak eskualdeari esleitzeko moduari dagokionez, toki-erakundeen iritziz esleipen horiek beti udalen eskuordetzaz egin beharko litzateke (% 74,77).

Arestian aipatu moduan, gai honetan dago desadostasun handiena Nafarroako Gobernuaren proposamenarekiko; horren arabera, eskualdeak eskumen horiek legez edo eskualde-organoen erabakiz hartuko lituzke, eskualdeko udalen borondatea aintzat hartu gabe.

Eskualdeari eskumenak esleitzeko moduari buruz prozesutik jasotako emaitzak honako hauek dira:

- % 49 ez dago ados uraren, hondakinen eta gizarte-zerbitzuen eskumenak eskualdeak legez eskuratzearekin; % 44 ados dago.
- % 84, eskualdea eratzeko legeak bestelako eskumenak legez esleitzearen aurka agertu da.
- % 80,61 eskualde-organok dagokien udalen borondatea kontuan hartu gabe zenbait eskumen beren gain hartzea erabaki ahal izatearen aurka dago.

Izaera instrumentaleko zerbitzuei dagokienez, ados gaude eskualdeak beharrezkoak diren babes eta laguntza zerbitzuak ematearekin, batez ere tamaina txikiagoko entitateentzat, kontzejuentzat, bere kasuan, barne. Zerbitzu horien artean leudeke, besteak beste, idazkaritza eta kontu-hartzailtza, hirigintza-, ingurumen- eta euskara-zerbitzuak.

Edonola ere, Administrazio Zerbitzuen Elkarteei dagokienez (halakotzat ulertzen dira sortu berriak direnak), % 48,36k eskualdeek koordinatu beharko lituzketela irizten dio, eta % 24,07k eskualdeek hartu beharko lituzketela beren gain.

Emaitza horren arrazoia hauxe izan daiteke: aipatu Administrazio Zerbitzuen Elkarteen lana positiboki baloratzen da eragimenari eta herritarrekiko hurbiltasunari dagokienez, batez ere landa-eremuan.

● **FINANTZIAZIOA**

Toki-erakundeek eskumenak eskualdeen esku nola utzi proposatzen dutenaren arabera, entitate horien finantziazioa soilik deribatua izan daiteke. Eskualdeek zenbait jarduerari dagokion ekonomia-jardueren gaineko zergan (EJZ) zuzeneko parte-hartzea izateko aukerari dagokionez, ez du gaiak emaitza argirik lortu (% 47,07k baietz, eta %45,65ek ezetz); horrek zuzeneko lotura dauka zenbait zuzkiduraren kudeaketa eskualdeen esku uztearekin.

Nafarroako Gobernuak eskualdeari esleitzeko dizkion eskumenei dagokienez, finantziazioak zuzenean Nafarroako Gobernuarena izan beharko du, eta zerbitzuaren kostu osoa estali beharko du.

Horrez gain, emandako iritzien arabera, Nafarroako Gobernuak eskualdeen izaera instrumentaleko hainbat zerbitzuren kostuaren zati bat bere gain hartu beharko luke, kontuan

hartuta probintziako diputazioa den aldetik berari dagokiola laguntza eta lankidetzazko juridikoa eta teknikoa, besteak beste, emateko erantzukizuna (Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legea).

● **ELKARTE TRADIZIONALAK**

Horiei eustea proposatzen da, horien xedeka eta eskumenak bereziak direlako. Areago, % 51,17k beste eskumen batzuk bereganatzea ere onartzen du.

Horri dagokionez, gobernuaren proposamenak ere onartzen du bestelako eskumenak bereganatu ahal izatea, baina, betiere, eskualdeak ematen dituenekiko teilakatzen ez badira.